



Hezkidetzan hezi, berdintasunean hazi



D.B.H ETA BATXILERGOA

Hezkidetzan hezi, berdintasunean hazi

Edizioa::

ALBOAN

Aita Lojendio, 2-2 - 48008 Bilbo

Tel.: 944 151 435

Andia, 3 - 20004 Donostia

Tel.: 943 275 173

Barañaingo etorbidea, 2 - 31011 Iruñea

Tel.: 948 231 302

Monseñor Estenaga, 1 - 01002 Gasteiz

Tel.: 945 202 676

www.alboan.org

alboan@alboan.org

Argitalpenaren koordinazioa: **Virginia Basurto**

Edukien lantaldea: **Kattalin Marin, Zigor Uribe-Etxeberria, Miguel Ángel Navarro, Ainhoa De la Hoz, Virginia Basurto.**

Ilustrazioak: **Eneko González Yagüe**
www.ekilikua.com

Diseinua eta maketazioa: **Erreka Multimedia S. Coop**

Itzulpena: **Bakun S.L**

Inprimatzea: **ABZ Digital**

Lan honen erreprodukzio partziala baimentzen da, betiere helburu komertzialik ez badu eta iturriaren aipamena egiten bada.

ALBOAN Euskadiko eta Nafarroako jesulagunen nazioarteko lankidetzarako GKEa da.

Munduan desberdintasunak eragiten dituzten bidegabekeriak salatuko dituzten, ondasun erkidea sustatzen duen kultura eraikiko duten eta herri zein mundu mailan pobrezia dakarten egiturak eraldatuko dituzten herritarrak eratzearen alde lan egiten dugu. Hori lortzeko, mundu osoko pertsona eta taldeekin sarean biltzen gara.

Gure helburua pertsonen garapen integralari onurak dakartzkion hezkuntza diseinatzen aurrerapenak egitea da, hezitzaileekin batera. Berdintasuna, zuzentasuna, lankidetzeta eta zaintzaren balioak irakatsi behar dizkiegu haur eta gazteei, gure mundu globalak behar dituen herritar osoak izan daitezen.

Baina... zer da hezikidetzeta?

Hezikidetzeta hezkuntza mistoa izatea eta neska-mutilek gela berean ikastea baino askoz gehiago da; izan ere, neskak eta mutilak gela berean sartzeak —beharrezkoa izan arren— ez du bermatzen irakaskuntza bidezkoagoa eta berdinzaleagoa izango dela. Fernando González Lucini pedagogoak, hezikidetzeta definitzeko, “pertsonen sexua edozein izanda ere haien garapen integralari mesede egiten dion hezkuntza-prozesua” dela dio. Horren ondorioz, ikastetxe hezikidea zer den azaltzeko, esango genuke “sexuaren arabera ezberdintasun edo bereizkeria-mekanismo guztiak zuzentzen edo ezabatzen dituen dela, eta ikasleek egiazko berdintasun-giro batean beren izaera libreki garatzea ahalbidetzen duena, sexuaren eraginezko inolako baldintzatzaile edo mugarik gabe”.

Ideia horretan sakonduz, Marina Subirats Martori soziologoak, Espainian hezikidetzaren aintzindarierako bat denak, adierazten du “hezikidetzak une honetan helburu gisa duena bereizkeria-mekanismoak ezabatzea dela, eta ez bakarrik ikastetxeko egitura formalean, ideologian eta hezkuntza-praktikan ere bai”. Zentzu horretan, hezikidetzeta “ezin da izan soilik neskak eredu maskulinoan txertatzen dituen hezkuntza mota bat, hasieran proposatu zen moduan. Ez da hezikidetzarik egongo, lehen genero bakoitzari zegozkiola jotzen zen arau kulturalen fusiorik ez bada egiten”.

ALBOANetik definizio horiek hartu ditugu, eta ikuskera horretatik ekin diogu proposamen hezikide bat eraikitzeari, gure laguntzarekin norabide horretan aurrera egin nahi duten gure inguruko ikastetxeentzat.

Eta zer da aurkezten dizueguna?

Eskuartean duzun hezkuntza-proposamena irakasleek ikasleekin ekitatearen norabidean lan egiteko tresna desberdinak izaten laguntzeko desiotik dator. Material honek proposamen grafiko bat du lagungarri gisa, eta lau gai edo lema handitan banatuta dago, gure ikasleekin kontzeptuak eta egoerak lantzeko abiapuntu gisa erabiltzeko.

Hezkidetzan hezi, berdintasunean hazi

Hauek dira gaiak:

Historiaren ezkutuko protagonistak

Berdintasuna egunerokotasunean eraikitzen da

Aniztasunean, berdinarak

Berdinarak al gara, benetan?

Proposamen grafikoak bi helburu ditu. Alde batetik, ikasgela edo ikastetxea girotzeko balio du. Beste alde batetik, poster bakoitzak bertan agertzen diren gaiak lantzeko balio du.

Koaderno honetako jarduerekin hasi aurretik, proposamen grafikoetan agertzen diren marrazkiei buruz ikasleekin eztabaidatzea proposatzen dizuegu. Modu horretan, paretak apaintzeaz gain, ikasleei ere giroan sartzen lagunduko diegu, lan-koadernoko proposamenak sakontasun handiagoz lantzen hasteko. Horretarako, ikasleei poster bakoitzak zer iradokitzen dien, saioan zeri buruz jardungo garen eta agertzen diren marrazkietatik zer ideia edo ondorio ateratzen dituzten galde diezaiekegu.

Koaderno honetan, lau gai horientzako jarduera bana aurkituko duzue hezkuntza-etapako ziklo bakoitzerako. Jarduerak irakasleek egoki iritzitako moduan lantzeko prestatuta daude, dela egun jakin batean zehar egiteko, dela ematen dituzten ikasgai edo proiektuetan zeharka txertatzeko.

Fitxetako bakoitzean jardueraren izenburua, garapena, gaitasunak, jarduera txertatzeko moduko ikasgaiak, jardueraren iradokitako iraupena eta beharrezko materiala adieraziko dira. Irakasleak, ikasleak eta haien ezaugarriak hobekien ezagutzen dituen aldetik, egokitu eta alda dezala beharrezkoa den guztia.

Azkenik, proposatutako saioak amaitu aurretik ebaluazio-, hausnarketa eta itxiera-tarte bat uztea proposatzen dugu, ikasleek saioaren ostean sentitu dutena adierazteko eta alderdi emozionala garatzeko.

Horretarako, saioen amaieran begiak itxi eta bihotzeko taupadak entzuten saia daitezen eskatzea proposatzen dugu. Jarraian, 5 arnasketa egindakoan (adinaren arabera alda daiteke kopurua), hiru espaziotan kokatzeko eskatuko diegu (edo hiru koloretako paperak eman diezazkiekegu, edo adierazi nahi ditugun sentipenak gehitu), hauek kontuan izanda:

- 1- Jarduerak askeago sentitzea eragin die (txikiak kasuan, pozik egoteaz ordeztu daiteke).
- 2- Arduraren bat sentitu dute edo ezagutzen ez zuten desberdintasunen batez ohartu dira.
- 3- Hirugarren espazioa, dibertigarria iruditu bazaie.

Espero dugu materiala interesgarria iruditzea eta atsegin handiz argitaratuko ditugu zuen esperientziak, martxan jartzen duzuenen.

Materiala interesatzen bazaizue eta hezkidetzan sakondu nahi baduzue, ikastetxearen hezkidetzaren arloko autodiagnostikoa egiteko aholkularitza eta laguntza eskainiko dizkizuegu, eta ondoren, alde batera utziak dituen alderdiak zuzentzeko edo hobetzeko plan bat egingo dugu. Jarri gurekin harremanetan educación@alboan.org helbide elektronikoan, bide hau egiten ari diren beste ikastetxeekin bat egiteko.



ANIZTASUNEAN, BERDINAK

Jardueraren izena

Afrikar emakumeak

Helburu zehatzak

- Emakumeek Afrikan duten egoera aztertzea
- Afrikar emakumeei buruz zergatik dagoen hain informazio gutxi hausnartzea.

Konpetentziak

- Hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia
- Modu digitalean komunikatzeko konpetentzia
- Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzia

Hezkuntza-etapa

DBHko lehen zikloa

Irakasgaiak

Gizarte Zientziak; Ingelesa; Frantsesa; Etika; Erlijioa

Garapena

Zer dakigu afrikar emakumez? Ezagutzen al dugu kargu politikorik duen afrikar emakumeren bat?
Zer esaten digute komunikabideek afrikar emakumei buruz?

Afrikar emakumei buruz ditugun irudiak gogora ekarri, eta irudi horiei buruzko ideia-jasa egingo dugu, hiru alderdi aztertuz: lehendabizi gizarteak zer irudi duen aztertuko dugu, eta, ondoren, komunikabideek zer transmititzen diguten eta ea ezagutzen dugun gizartearen alde egindako lanagatik ospetsu den afrikar emakumerik. Emakume horien irudirik ez badugu, horren zergatiaz hausnartu dezakegu, eta Interneten irudi horiek bilatu, zer azaltzen den ikusteko.

Ondoren, 5 laguneko talde txikiak egingo ditugu ikasgelan, eta talde bakoitzari testu bat emango diogu (I. ERANSKINA) afrikar emakume aipagarri bati buruz. (Testuak webgune honetatik atera dira: <http://beijing20.unwomen.org>)

Behar adina denbora emango zaie irakurtzeko. Gero talde bakoitzeko ordezkari batek gainerako ikaskideei azalduko die lortutako informazioa, eta afrikar emakumez zergatik genuen hain informazio gutxi hausnartuko dugu.

Beharrezko materiala

I. ERANSKINA

Iraupena, gutxi gorabehera

55 minutuko saio bat

Irakasleentzako orientabideak:

1962an Afrikar Emakumeen Konferentzia egin zen Tanzanian, eta Afrikar Emakumearen Eguna urtero uztailearen 31n ospatzea erabaki zen. Pobrezia, berdintasunik eza eta desnutrizioa gehien zabaldua dauden munduko lekuetako bat da Afrika, eta afrikar emakumeek egoera horren ondorioak jasaten dituzte.

Hala ere, afrikar emakumearen eginkizuna eta lana funtsezkoak dira gizartea eraldatzeko, eta horregatik nabarmendu nahi dugu emakume horietako batzuen lana, askotan ez baitzaie behar bezala aitortzen. Jarduera honetan, emakume batzuen lana banan-banan azalduko dugu, egiten duten lana gehiago pertsonalizatzeko.

Dena dela, jarduera hau aldatu egin daiteke, beste emakume batzuen kontakizunak edo talde feministak ere sartzeko, batasunaren garrantzia azpimarratu nahi baita, gizartea aldatzeko eragilea den aldetik.

I. ERANSKINEAN lau emakumeren historiak daude.

Gehiago behar izanez gero, webgune honetan aurki daitezke <http://beijing20.unwomen.org>



I. ERANSKINA

Liberiako gerra zibilean, atzean balen hotsa entzuten zela, modu bat aurkitu zuen ehunka emakume mobilizatzeko; eta beren landa-herrixkatik, Totota, herrialdeko mendebaldean matxinoen mende zegoen lurraldera joateko. Ezohiko erabaki bat izan zen. **Annie Nushann** emakumeen eskubideen aldeko ekintzaileak eta hamar seme-alaben amak, gatazkaren erdian, heriotzari aurre egiten jarraitu zuen, Liberian bakearen lehen etxola eta emakumeen ahalgintza-gunea sortzeko. Bakearen etxola lehen alternatiba izan zen, emakumeen eskubideekin loturiko kasuetan justizia eskatzeko, baita sexu- eta genero-indarkeriako kasuetan ere. Indarkeriatik bizirik atera zirenentzako babesleku segurua izateaz gain, emakumeek gidatzen zituzten bake-negoiazioak egiteko leku bat ere bazen, baita emakumeak gerra-garaian eta gerra ostean lidergoan trebatzeko ere.

Gerra 2003an amaitu zen bake-akordio nazionala sinatuta, baina artean genero-indarkeriako kasuak gertatzen ziren. Nushannek bakearen etxolak eta emakumeen ahalgintza-guneak zuzentzen jarraitu zuen. Orain 17 dira, eta 425 emakume trebatu dira haietan, lidergoa, bakearen finkapena eta gatazka-konponketa landuz. Emakume liderrek genero-indarkeriari buruzko gaiei ekiten diete, bai eta komunitateko pertsonen gai publiko eta pribatuekin loturiko arazoak konpontzen saiatu ere. Lan horietaz gain, emakumeen ahalgintza-guneetan, emakumeen ahalgintza ekonomikoari buruzko trebakuntza-saioak ere ematen dira, honako gai hauek landuz: negozio txikien kudeaketa, alfabetatzea, arropa, poltsak eta beste produktu batzuk egitea, etab. Bakearen etxoletan egiten den lana nazioartean goratu dute, eta Ellen Johnson Sirleaf Liberiako presidentea —Nobel sariduna— ere bisitatu ditu, baita Nazio Batuetako zenbait arduradunek ere. Bakearen etxolei bake iraunkorraren alde egiten dituzten ekimen bideratzaileak aitortu zaizkie.

Annie kautxua zuhaitzetik ateratzen lan egiten zuen gizon baten alaba zen. Etxe zoriontsu batean hazi zen, nahiz eta aitak egunean bi dolar estatubatuar baino gutxiago irabazten zuen, eta berak iraupeneko nekazaritzan eta etxean lan egin behar zuen. Nushannek ahalik ongien lagundu zion aitari, eta harekin bizitzea aukeratu zuen gurasoak dibortziatu ondoren, ikasketekin jarraitu ahal izateko. Geroago ezkondu eta negozio txiki bat ireki zuen eta, finkatzen hasi zenean, gerra zibila piztu zen 1989an. Bere biziaz, seme-alabenez eta

bere negozioaz kezkatuta, babesa bilatu behar izan zuen Boli Kostan. Hala ere, egoera zail horietan, bakea sendotzearen garrantziaz hausnartu zuen, eta bere herrialdeko emakumeen egoera aldatu nahi zuela pentsatu zuen. Horrela, balei aurre egin, seme-alaben bizia arriskuan jarri, eta Liberiara itzuli zen emakumeak mobilizatzera, gerra zibila amaiazteko eska zezaten, eta bakearen etxolak eta emakumeen ahalgintza-guneak sortu zituen. Bere senarrak etengabe aurpegiatzen zion etxeko lanak baztertu zituela, eta, hala ere, ausardiarekin eta baikortasunez jarraitzen du sinesten duen horretan lan egiten. <http://bit.ly/2BwjZxA>

Sierra Leonako historiako liburuetan, berehala aurkituko dugu emakume honen izena: bere herrialde maitearen bakea asaldatu zuen hamaika urteko gatazka baten ondoren, Kabinetearen sartu zen lehen emakumea izan zen, Hezkuntzarako estatu-idazkari karguarekin. Gaur egun, **Christiana Thorpek** 60 urte ditu, eta bere herrialdean gogoan dute Sierra Leonako hauteskunde-sistema osoa berregituratu zuen liderra izan zelako, hamar urtez Hauteskunde Batzordeko presidente gisa egin zuen lanari esker.

Hautzaroan, auzokoen seme-alabekin jolasten zenean, berak irakaslearena egiten zuen, eta, etxean, amonaren erlijio-irakaspen sakonak bereganatzen zituen. Nerabezaroan, Irlandako komentu batean sartu zen. Herrialde horretan, bere iritziz, eguzkiak argi egiten du eta bere jaioterrian ez bezala sentitzen da. Han, unibertsitate-titulua, eta, Mendebaldeko Britainiar Indietan, master bat eta doktoretza bat lortu ondoren, Sierra Leonara itzultzea erabaki zuen. Kanpoaldeko esperientzia aberasgarriaren ondoren, prest zegoen hezkuntza bide zabala eta inklusibo bihurtzeko, emakumeek askatasun handiagoa izan zezaten.

Neskei eskolako ikasketak amaitzen lagundu nahi zenez, Thorpe eskolak ematen hasi zen. Neskek eskola uzteko eta etxean laguntzeko presio izugarria zutela esan ziotenean, erakundearen zuzendari bihurtu zen, modu berritzaileak aurkitu nahi baitzituen neskek eskolan jarraitu eta ikasketak amaitu zitzaten.

Sierra Leonako Afrikar Pedagogoen Foroko presidente fundatzailea izan zen garaian (FAWE, ingelesezko siglen arabera, 1995ean sortua), aldaketak eragiteko zuen indarrari esker, emakumeek eta neskek



goi-mailako ikasketak egiteko aukera izan zuten. FAWE gatazkan nabarmendu zen, gaitasuna erakutsi baitzuen neska eta emakume marjinatuak, lekualdatuak eta sexu-abusuak jasandakoak babesteko. Geroago, Foroak Ginean gizarteratzen lagundu zien emakume haiei, hara erbesteratu baitziren, eta hezkuntza formala eta ez-formala jaso zituzten. Emakume horietako batzuek Thorpek egindako bideari jarraitu nahi diote.

Kemen nekaezin batez, 1993an Hezkuntzarako estatu-idazkari kargua eskuratu, eta hezkuntza-modu berriak antolatu zituen, hezkuntza formalean ondo moldatzen ez ziren gazteei laguntzeko.

Gatazka amaitu eta berehala, aurreko presidenteak karguari uko egin eta bederatzi hilabetera, Christianak Hauteskunde Batzordearen presidente kargua bere gain hartu zuen; lau mandatarik gizonetako ere kargu hori lehiatu ziren. Presidente kargua emakume batek eskuratu zuela jakin zutenean, etorri berri haren aurka aritu ziren (Christianak berak horrela esaten zion bere buruari). "Mundu berria zen eta nik kristalezko sabaia zulatu nuen" adierazi zuen Thorpek, Hauteskunde Batzordean lortutako izendapenaz eta egindako ibilbideaz hitz egitean. "Gizonekin ezin da jardun arrazoi emozionalak erabiliz, baizik eta adimena, zuzentasuna eta lana baliatuz, haien maila berean egoteko eta unerik bategan gaitzitzeko" adierazi zuen.

Jende askok dio Christianak erakundea birsortu zuela, hauteskunde libre eta berdintasuneko sinbolo bihurtu baitzen. Izan ere, hauteskunde-erregistro biometrikoak ezarri zuen lehen mandataria izan zen; hau da, goi-mailako teknologiko asmakizun bat, hautesle-erregistroaren bikoizketa eragozteko eta zehaztasuna bermatzeko. Gatazkaren osteko hauteskunde-prozesua zuzendu zuen 2007an, herrialdearen historiako garai iskanbilatsu eta arriskutsu batean.

"Erabaki nuen hauteskunde-prozesuan zentzuz jokatzeko, eta azken ematea erabat zabaldua zegoen hauteskunde-iruzurraren inpunitateari". Christiana, bere ibilbide luze eta bikaina berraztertutik ondoren, hurrengo abenturan hasi da pentsatzen: Izarrak eskuratu izeneko erakunde berria. Thorpek haxe adierazi du: "Gure gizarteko pertsona ahaztuen eta baztertuen alde lan egin nahi dut berriz ere. Erakunde horren helburua laguntza-sistema bat eta bekak eskaintzea da unibertsitate-ikasketak egin nahi dituzten neska eta emakumeei, gai izan daitezen hain zabaldua dagoen sexu-jazarpena gaitzitzeko, konfiantza lortzeko eta gizonetako pare moldatzeko".

"Bada itzaropena Sierra Leonako emakumeentzat, une egokia da emakumeak garen aldetik gure duintasunari dagokion bezala jokatzeko eta gure herrialdean lidergoaren erantzukizuna hartzeko, aritzen garen alor guztietan".

<http://bit.ly/2Apluze>

parraldeko Darfurreko hiriburuan, El Fasherren, jaio zen familia ugari batean. Haurtzaroaren zati handi bat anai-arreben artean bitartekari-lanak egiten eta bakea eraikitzen igaro zuen. Gaur egun ere, **Zahra Abdelnaieem** bake-eraikitzailea eta ekintzailea da, baita Niswa erakundearen zuzendaria ere. Niswa komunitateetako emakumezko lider erlijioso eta politikoen sare bat da, 2011n sortua, Darfurreko Bake Itunaren negoziazioetan emakumeen parte-hartze aktiboa bultzatzeko. Darfurreko gatazkaren ondorioz, lehortee eta bat-bateko uholdeek larriagotuta, ehunka mila pertsona lekualdatu behar izan dute, eta biktimen kopuruak etengabe egin du gora. Hori dela eta, Niswaren lanak funtsezko garrantzia du.

Gaur egun, sarea zabaldu egin da eta bake-itunez gain, gatazketan aurkako alderdietan zeuden taldeekin ere lan egiten dute, bakearen eta adiskidetzaren aldeko ahaleginetan bat etor daitezela. Oso lan gogorra da eta eragozpen ugari ditu, baina, hala ere, Abdelnaieem jarrera baikorrez esnatzen da goizero, prest baitago bakea lantzeko, talde gatazkatsuen arteko elkarriketa sustatzeko eta genero-indarkeria jasan dutenei laguntzeko, bai eta gatazken eraginez lekualdatutako pertsonen osasun-zerbitzuak eta komunitatearen laguntza lortzen laguntzeko ere.

Khartumeko unibertsitatean ikasi eta 1970ean lizentziatu zen, eta hori sekulako lorpena izan zen emakume batentzat, emakume



gehienen eginkizuna etxeko lanetara mugatzen baitzen. Zahra artean gazte zela hil zitzaion aita, eta handik gutxira ahizpa galdu zuen. Hala eta guztiz ere, familia edukitzeaz pozik dagoela dio, eta oso gustura sentitzen dela ilobekin dagoenean.

Abdelnaieem emakumeen eskubide zibilen aldeko ekintzailea izan da denbora luze, eta bake-elkarrizketak negoziatu ditu komunitateetan gatazkaren aurretik nahiz gatazkaren garaian. Azpimarratzen du Hegoafrikara 2010ean egindako bisita batek bizitza aldatu ziola, harremanetan jarri baitzen Afrika osoan adiskidetzearen alde lan egiten duten eskubide zibilen aldeko ekintzaileekin. Urte askoan emakumeek ordezkari politiko handiagoa eta bake-elkarrizketetan parte-hartze aktiboa izan zezaten borrokatu ondoren, 2013. urtean zerbait garrantzitsua gertatu zen: bi emakume administrazio-egitura tradizionaletan sartu ziren ofizialki, Omdas edo lider komunitario gisa. Zahra elkarlanean ari da Omdas deiturikoekin, Darfur osoko komunitateetara bakea eta egonkortasuna eramaten ahaleginduz. Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluaren 2000. urteko 1325 ebazpenak nabarmendu zuen emakumeen parte-hartzea garrantzitsua zela bakea finkatzeko eta gatazkak konpontzeko. Hori motibazio-iturri da Abdelnaieementzat, eta beti gatazken erdian jartzera bultzatzen du, bakea lortzearen itxaropenarekin. Elkarrizketa honetan, El Fasherren egiten duen eguneroko bizitza kontatzen digu, nola laguntzen dien gatazkaren ondoriozko genero-indarkeria jasan dutenei, eta nola lan egiten duen zenbait talderekin bake iraunkorra sortzeko.

<http://bit.ly/2idUQ34>

Oztopo kulturalak gainditzeko eta nahi zuen bezala bizitzeko gai izan delako, izengoiti hau jarri diote: Gineako itsas armadaren ama. Gineak baliabide mineral ugari ditu, baina ginear gehienak pobreak dira. Ginear horietako bat, Bontou Soumah andrea, Gineako marinako ofizial suprefeteko maila lortu duen lehen emakumea izan da. **Bontou Soumah** kapitainak gazte-gaztetatik jakin zuen bere adineko gazte gehienek baino modu arduratsuago eta adituagoan lan egin zezakeela.

Armada erroldatu eta itsas akademian graduatu ondoren, Gineako itsas armadan sartzeko aukera izan zuen. Beste hiru emakume soilik sartu ziren itsas armadan Bontou sartu zen garai berean. Geroago, mailaz igotzen hasi, eta ofizial izatera iritsi zen, eta 2005ean Errepublikako Meritu Ordena eman zioten presidentearen aginduz. Hain sari bikaina lortu zuen lehen emakumea izan zen.

“Alaba zaharrena naiz 14 seme-alabako familia batean. Ama alargun gelditu zenez, lan mordo zegoen egiteko”, gogoratzen da. Izugarri altua zenez, amak mari-gizon esaten zion, eta izengoiti hori izan du ia bere bizitza osoan. Gazte-gaztetatik, Soumah kapitainak amari lagundu behar izan zion, normalean mutilek egin behar izaten dituzten etxeko lan nekagarriak egiten. Eta gaur egun ere amari eskertzen dio lan-etika positibo eta genero-ikuspegitik berdintasunezkoa irakatsi izana. Bera ere gauza bera egiten saiatzen da bere bost seme-alabekin.

Itsas akademian graduatu zenean, ziur zegoen armadan bizitza zoragarria izango zuela, eta berehala erroldatu zuten Gineako itsas armadan. Atzerrian itsas prestakuntza osagarria jasotzeko gogo bizia zuen, baina horretarako gaitasuna izan arren, hasieran ez zioten baimenik eman, emakumea izateagatik, bost urteko goi-mailako prestakuntza jasotzeko. Hala ere, ez zuen amore eman, eta bere buruari erronka hori gaindituko zuela agindu zion. “Emakumeek beldur gutxiago dugu eta errazago hartzen dugu



gailurrera heltzeko erabakia, gure anbizioak errealtate bihurtzeko, gizonek susmatu ere egiten ez dituzten anbizioak”, adierazi du.

Erronka hura gainditu zuen, jakina: lehendabizi, bulegari-lanak egin zituen eta, gero, Gineako Errepublikako administrazio-arlo handienetako batean itsas ofizial suprefet maila lortu zuen lehen emakumea izan zen. Laster bere lanaren emaitzak eta bere kide gizonezkoen errespetua eskuratzen hasi zen. “Gaur egun, lau emakume besterik ez dute ofizial suprefet maila Gineako itsas armadan, halako 303 postuen artean. Nire suzko bataioa bizi izan nuenean, 1988an, ez zegoen emakumerik indar armatuetan. Gizonei aplikatzen dizkieten eskakizun berdinak aplikatzen dizkirate niri ere”, adierazten du. Ez da harrizkoa arazoak izatea bere agindupeko kide batzuekin, baina berak nahiago du bizitzako alderdi positiboetan gogoia jartzea.

Orain dituen funtzioen artean, arreata berezia jartzen du emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko gaitan, bai eta Ginean gazte izatearekin loturiko erronkei ere; izan ere, bere herrialdea gatazka osteko egoera bizitzen ari da. Genero Berdintasunerako Funtzak eta beste zenbait erakundek emandako diru-laguntzei esker, atsedetik gabe ari da oinarri komunitarioko proiektuak abian jartzen zenbait arlotan, hala nola alfabetatze-kanpainetan, eguzki-lurrunketaren bidezko gatz-ekoizpena lantzen eta lanbide-gaitasunak garatzeko emakumeentzako tailerrak antolatzen.

Gauean berandu arte lan egin behar izaten du, emakumeen ordutegietara moldatu behar baitu, emakumeen etxeko lanak eta asmo profesionalak bateragarri egiteko. GIBekin (VIH) loturiko gaixotasunen eta eskualdean dauden beste osasun-arazo batzuen ondorioz, emakume askok familiaburuaren eginkizunak hartu behar izan dituzte. “Gaur egun, emakumeek etxean eta etxetik kanpo lan egin behar dute, hilaren bukaerara iritsi ahal izateko. Zorionekoa naiz senarraren babesa baitut egiten ditudan gauza guztietan, baina emakume askok ez dute zorte bera”. Galdetu zaionean zer mezu transmititu nahi dien emakume gazteei, haxe erantzun du: “Kemenak eta ausardiak ematen dizkiete emakumeei beren helburuak lortzeko behar dituzten gaitasunak. Izan adoretzu!”

<http://bit.ly/1G1fneg>

BERDINTASUNA EGUNEROKOTASUNEAN ERAIKITZEN DA

Jardueraren izena

Mikromatxismoak

Helburu zehatzak

- Mikromatxismoa zer den jakitea
- Mikromatxismoaren garrantziaz eta ondorioez hausnartzea

Konpetentziak

- Hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia
- Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzia

Hezkuntza-etapa

DBHko lehen zikloa

Irakasgaiak

Gizarte Zientziak

Garapena

Mikromatxismoa kontzeptuari buruz zer dakiten eztabaidatzen hasiko gara:

- Zer da mikromatxismo bat?
- Zer iruditzen zaizue?
- Inoiz gertatu al zaizue? Noiz?
- Adibideren bat jarriko al zenuke?



Ondoren, mikromatxismoak salatzen dituzten ikasle batzuen bideo hauek proiektatu eta komentatuko dira: *“Micromachismos”* eta *“Micromachismos IES Turgalium”*

Bideoak ikusi ondoren, berriro galdetuko da:

- Inoiz gertatu al zaizue? Noiz?
- Ezagutzen al duzue halakorik gertatu zaion norbait?

Nork bere gogoeta egin dezan, ikasle bakoitzari eskatuko diogu minutu batzuetan pentsatzeko inoiz mikromatxismoren bat egin duten, eta papertxo batean idazteko izenik jarri gabe; behar izanez gero, mahaia elkarrengandik aldentzeko ditugu, papertxoan idazten ari direna besteek ez irakurtzeko.

Arduradunak, papertxoak jaso, eta bigarren saio baterako aztertuko ditu.

Bigarren saioa:

Ikasleek egindako gogoeta interesgarrienak ozenki irakurriko dira, anonimoak direla gogoratuz, eta denon artean komentatuko dira. Eztabaida errazteko, hauen moduko galderak egin ditzakegu:

-Nola senti daiteke komentario hori jasotzen duen pertsona? Zergatik egiten dugu? Normala dela iruditzen zaigu?...

Bukatzeko, proposa dezakegu ikasle guztien artean gomendio batzuk idaztea, ikasleek mikromatxismorik egin ez dezaten, eta mikromatxismoak zer diren eta zer ondorio dituzten ezagutarazteko.

Gomendio horiek ikasgelan bertan gelditu daitezke, edo ikastetxeko gainerako ikasleei ere jakinarazi.

Azkenik, bideoklip hau ikus daiteke: *Mee too*

Beharrezko materiala

Ordenagailua; Bozgorailuak

Bideoak. Mikromatxismoak: <http://bit.ly/2B8qc2p>

Mikromatxismoak IES Turgalium: <http://bit.ly/2BfgrlQ>

Mee too: <http://bit.ly/27b3vpM>

Iraupena, gutxi gorabehera

55 minutuko bi saio

Irakasleentzako orientabideak:

1991n, Luis Bonino Méndez psikoterapeutak honela definitu zituen mikromatxismoak: “Eguneroko bizitzan egiten den indarkeriazko ekintza bat, hain sotila, non oharkabean gertatzen den, baina jarrera matxistak eta emakumeen eta gizonen arteko genero-berdintasun ezak iraunarazten dituen”.

Luis Boninoren artikulua hau irakurtzea gomendatzen dugu: *“Micromachismos, 25 años después”* <http://bit.ly/2vk8xmb> Artikuluan, termino horren bilakaeraz, gizonen eta emakumeen erreakzioez eta abarrez hausnartzen du.

BERDINAK AL GARA, BENETAN?

Jardueraren izena

Lan-arloko desberdintasunak

Helburu zehatzak

- Gizonen eta emakumeen estereotipoei buruz hausnartzea
- Gizonen eta emakumeen lan bat eskuratzeko duten berdintasun ezari buruz hausnartzea

Konpetentziak

- Ikasten ikasteko konpetentzia
- Hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia
- Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzia

Hezkuntza-etapa

DBHko lehen zikloa

Irakasgaiak

Gizarte Zientziak, Matematika

Garapena



Zer eginkizun dute emakumeek gizartean? Eta gizonen? Eskubide eta erantzukizun berak dituzte gizonen eta emakumeen? Gai horiei buruz eztabaidatzea proposatzen da.

Dinamika erraza da. Lehendabizi, ikasle bakoitzak emakumeen egoerari buruzko test bat beteko du (Ikusi I. ERANSKINA). 1 zenbakia aukeratuz gero, erabat aurka gaudela esan nahi du; 9 zenbakia aukeratuz gero, erabat ados gaudela.

Denbora-tarte bat hartuko da ikasle bakoitzak hausnartu dezan, eta, ondoren, bateratze-lana egin eta eztabaidatu egingo da.

Jarduera osatzeko, galdetuko diegu ea uste duten lana aurkitzeko zailtasun edo erraztasun gehiago izan ditzaketen gizon edo emakume izateagatik.

Bideo hau proiektatuko dugu: *“recursos humanos”*

Bideoa ikusi ondoren, zer iruditu zaien galdetuko diegu, eta Espainian lan-elkarrikeria batean legez kanpokoak diren galderak aipatuko ditugu. (Horretarako, esteka honetara jo behar duzue *“Guía de derechos laborales en materia de igualdad de género. EMAKUNDE”*)

Denbora izanez gero, III. ERANSKINEKO irudia proiektatuko da, El mundo egunkaririk ateratakoa. Irudian, Espainian gizonen eta emakumeen soldaten aldea modu grafikoan azaltzen da.

Beharrezko materiala

- Inkestak I. ERANSKINA
- II. ERANSKINA bideoa <http://bit.ly/1vELQHj>
- III. ERANSKINA
- Emakunde gida: <http://bit.ly/2B1qc9p>
- Soldata-diferentziei buruzko txostena: <http://bit.ly/2l1T8Z>

Iraupena, gutxi gorabehera 50 minutuko 1-2 saio

Irakasleentzako orientabideak:

Esteka honetan: *“Guía de derechos laborales en materia de igualdad de género. EMAKUNDE”* 17. orrialdetik aurrera, elkarriketetan bazterkeria ez izateko arauak azaltzen dira.

“La falta de políticas de igualdad en el empleo incrementa la brecha salarial” txostenaren arabera, emakumeek gizonen baino 5.982 €gutxiago kobratzen dute urtean, balio berdineko lan bat egiteagatik.

I. ERANSKINA

	1	2	3	4	5	6	7	8	9
Gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna oso ondo dago, baina pertsona guztientzat lanik ez dagoenez, familako norbaitek amore eman behar du eta normalagoa da gizonen lan egitea.									
Lanpostu batzuetarako, emakumeek gizonen baino gaitasun gutxiago dute.									
Emakumeek eta gizonen eskubide eta erantzukizun berberak dituzte gizartean; beraz, lan eta ordainsari berak izan behar dituzte.									
Norbaitek egin behar ditu etxeko lanak eta zaindu behar ditu seme-alabak. Emakumeek gizonen ez duten sentzibiltate berezia dute; beraz, egokiagoa da emakumeek egitea gauza horiek.									

III. ERANSKINA

Lanpostuen eta soldaten arteko aldeari buruzko erradiografia


ZIFRAK ESPAINIAN

EKAMUMEZKOEK HAUXE KOBRATZEN DUTE GIZONEN ALDEAN:





	Aparteko ordainsariak:	-915,53 euro
	Gauzazko balioa:	-50,13 euro

GEHIENEK HEMEN EGITEN DUTE LAN:



Munduko **144** herrialderen artean, Espainia **29.** dago.



MUNDUKO POSTUA

0,738

BERDINTASUNAREN % (1ekiko)

0,742

Kontratu partzialeko langileak



Emakumeak



Gizonak

Iturria: Munduko Ekonomia Funtsa (WEF) / Ekonomia Gizarte Kontseilua (EGK) Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministeriora atxikia / UGT / EIN

Enrique Sánchez / EL MUNDO

HISTORIAREN EZKUTUKO PROTAGONISTAK

Jardueraren izena

Nor da nor?

Helburu zehatzak

- Emakumeek historian izan duten protagonismoaz hausnartzea

Konpetentziak

- Modu digitalean komunikatzeko konpetentzia
- Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzia

Hezkuntza-etapa

DBHko lehen zikloa

Irakasgaiak

Gizarte Zientziak

Garapena

Jarduera honetan proposatzen da historiako emakume aipagarri batzuekin nor da nor jolas bat egitea ikasle guztien artean.

Urrats hauei jarraituko diegu:

- ☞ Emakume protagonistak bilatu. Nor da nor jatorrizko jolasak 24 pertsona dituen, zenbait alor eta garaitan gailendu diren 24 emakume bilatu behar ditugu: zientzian, kirolean, ikerketan, politikan, mugimendu feministan, etab.
- ☞ Ikasle guztien artean, emakume horien zerrenda egingo dugu, eta aipatuko dugu zergatik nabarmendu diren.
- ☞ 24 izen lortzen ez baditugu, ikasgelan talde txikiak egingo ditugu eta bakoitzak arlo zehatz bateko emakumeak bilatu beharko ditu. (24 emakumeko zerrenda osatzeko zenbat emakume falta diren, horietatik bilatu beharko dituzte)
- ☞ Behin bilatuz gero, talde bakoitzak zer emakume aukeratu dituen eta zergatik azalduko die gainerakoei.
- ☞ Hurrengo urratsa emakume horien argazkiak bilatzea (denek tamaina berekoak izan behar dute), lau kopia inprimatzea eta plastifikatzea da.
- ☞ Nor da nor benetako jolas bat izanez gero, erabili egin daiteke. Benetako jolasaren fitxen tamainako irudiak inprimatuko ditugu, eta jatorrizko pertsonen ordean inprimatutakoak jarriko ditugu.
- ☞ Jolasa osatzeko, aukeratutako emakumeen laburpen bat, haien argazkiak eta historian izan duten eginkizuna inprimatuko ditugu.
- ☞ JOLASTU.

Beharrezko materiala

- Ordenagailua
- Internetarako sarbidea

- Koloretako inprimagailua
- Plastifikagailua edo plastifikatzeko filma

Iraupena, gutxi gorabehera:
55 minutuko saio bat

Irakasleentzako
orientabideak:

Ez da beharrezkoa *Nor da nor* jolasa edukitzea. Fitxak guk egin ditzakegu. Jolasteko, jarri fitxak ahoz gora, eta lehiakideak ez ikusteko, ipini erdian kutxa bat, kartoi bat, etab. Nor da nor jolasean fitxak jaitsi egiten dira, baina guk buelta emango diegu irudiei.

Bertsio honekin, behin baino gehiagotan egin dezakegu jolasa, eta banaka edo talde txikitan jolas gaitezke.



ANIZTASUNEAN, BERDINAK

Jardueraren izena

Kontuak ateratzen

Helburu zehatzak

- Etxeko lanak ez direla berdin banatzen ohartzea eta horren ondorioez konturatzea

Konpetentziak

- Matematikarako konpetentzia eta zientziarako eta teknologiarako oinarriko konpetentzia
- Gizarterako eta herritartasunerako konpetentziak

Hezkuntza-etapa

DBHko bigarren zikloa

Irakasgaiak

Matematika

Garapena

Jardueraren aurretik:

Jarduera egin baino bi egun lehenago, ikasleei zer landuko dugun azalduko diegu: etxeko lanen banaketa sexuaren arabera. Inkestak emango dizkiegu (I. ERANSKINA), eta denbora-tarte bat utziko diegu irakurtzeko eta zalantzak argitzeko. Gogorarazi oso garrantzitsua dela inkesta egitea, gaia lantzen jarraitu ahal izateko.

Jardueraren egunean:

Lehen zatia:

Inkestak bete ondoren, 5-6 lagunek taldeak egingo ditugu ikasgelan (edo irakasleari egokia iruditzen zaion taldekide-kopurua), inkesten emaitzei buruzko bateratze-lana egiteko. Hauxe adieraziko diegu:

- Kalkulatu emakumeek astero jarduera bakoitza egiten ematen dituzten orduen batezbesteko aritmetikoa, eta egin gauza bera gizonen datuekin.
- Kalkulatu orain zenbat denbora ematen duten gizonak eta emakumeek etxeko lanak egiten.
- Adierazi lortutako datuen ehunekoak grafiko batean. Ondoren, erantzun galderei, gainerako ikasleekin bateratze-lana egiteko.

Bigarren zatia:

Grafikoak eginda daudenean, lortutako emaitzei buruz hitz egingo da talde handian:

- Nork ematen dute denbora gehiago etxeko lanak egiten?
- Zer lanetan dago alde handiagoa?
- Bakoitzak etxeko lanetan emandako orduak batzen baditugu, eta horiei asteko lan-orduak batu eta lo-orduak kentzen badizkiegu, zenbat denbora libre dute gizonak eta zenbat emakumeek?
- Zer egin dezakegu eta zer egin behar dugu banaketa bidezkoa izan dadin?
- Ez al ditugu denok eskubide berberak?

Amaitzeko **bideo** hau ikus dezakegu: “Hobe berandu – Emakumeek gizonak baino sei ordu gehiago ematen dute etxeko lanak egiten”. Bideoan, gizonak eta emakumeek etxeko lanak egiten zenbat denbora ematen duten aztertzen da.

Beharrezko materiala

Inkestak (I. ERANSKINA)
Arkatzak, orriak eta kalkulagailua
Ordenagailua eta pantaila
Bideoa: <http://bit.ly/2ApE6Rv>

Iraupena, gutxi gorabehera

Batezbestekoak eta grafikoak egiteko behar den denboraren arabera
55 minutuko saio bat, edo saio bat eta erdi

Irakasleentzako orientabideak:

Jarduera egin aurretik, gogoratu inkestak bi egun lehenago eman behar zaizkiela, ondo betetzeko denbora izan dezaten.



1. ERANSKINA

Egin inkesta hau zuen inguruneke lau pertsona helduei.

Sexua: Gizona _____ Emakumea _____

Asteazken zenbat ordu ematen dituzu lan hauek egiten?	3 ordu baino gutxiago	3 ordutik 6ra bitartean	6 ordu baino gehiago
Kozinatzen			
Arropa lisatzen			
Arropa garbitzen			
Arropa tolesten, gordetzen...			
Josten			
Zaborra ateratzen			
Haurrak zaintzen			
Adineko pertsonak zaintzen			
Harrikoa egiten edo ontzi-garbigailua jartzen eta kentzen			
Ohea egiten			
Kozinatzen			
Sukaldea garbitzen			
Bainugela garbitzen			
Maskota(k) garbitzen edo zaintzen			
Hautsa kentzen			
Xurgagailuaz garbitzen			
Supermerkatura joaten / erosketak egiten			
Arropa lisatzen			
	Asteazken 20 ordu edo gutxiago	Asteazken 30 ordu edo gutxiago	Asteazken 30 ordu baino gehiago
Etiketarik kanpo ordaindutako lana izanez gero			



BERDINTASUNA EGUNEROKOTASUNEAN ERAKITZEN DA

Jardueraren izena	Emakume eta gizon ospetsuen kontuak
Helburu zehatzak	• Lan-arlo askotan gizonekin eta emakumeekin ez dela berdin jokatzeko jabetzea, bai eta hori normalizat hartzen dela ere
Konpetentziak	• Hizkuntza-komunikaziorako konpetentziak • Gizarterako eta herritartasunerako konpetentziak
Hezkuntza-etapa	DBHko bigarren zikloa
Irakasgaiak	Gizarte Zientziak
Garapena	

Bi ikaslek (neska bat eta mutil bat) eszena bat antzeztuko dute: telebistan, pertsona ospetsu bati elkarriketa bat egingo diote, genero-diskriminazioa agerian utziz (I. ERANSKINA).

Horretarako, 10 minutu inguru emango diegu, gidoia antzeztu behar duen bikoteak pixka bat ikas dezan. Bien bitartean, irakasleak gainerako ikasleei esango diete elkarriketa bat ikusiko dutela eta, gero, horri buruz hitz egingo dutela. Bi talde egingo dira. Talde batekoek elkarriketatzailerari erreparatuko diote batez ere, eta beste taldekoek, elkarriketatuari. Behaketa egin dezaten, II. ERANSKINAREN kopia bat emango diegu.

(ikasle boluntarioek ikaskideen aurrean elkarriketa antzezten duten bitartean, ikasleek ezin dute ezer komentatu eta adi egon behar dute)

Ondoren, ikasle guztien artean hauek komentatuko dituzte:

- Nola sentitu gara antzezpenean?
- Zerk harritu zaitu gehien ikaskideen antzezpenean?
- Zerrendatu elkarriketan azaltzen diren gizonen eta emakumeen rolak.
- Egoera erreala dela uste duzu? Zergatik?
- Orain aldatu pertsonaiak; "Aktorea (gizona)" jartzen duen lekuan, idatzi "Aktorea (emakumea)", eta "Aurkezlea (emakumea)" jartzen duen lekuan, idatzi "Aurkezlea (gizona)". Errealagoa al da orain? Zer dakarkizu gogora egoera horrek? Une honetan komentatuko dugu galdera horiek guztiak benetan egin zaizkiela emakume aktoreei, parte hartzen zuten filmak sustatzen ari zirenean.
- Zuen ustez, egoera horiek beste arlo batzuetan ere gertatzen dira?

Azken galdera horretan, lan-elkarriketei buruz hitz egin daiteke, emakumeei lege kanpoko galderak egiten baitzaizkie, hala nola beren egoera zibilaz galdetzen diete, seme-alabarik ba ote duten edo izateko asmorik duten... Eta nahiago dute emakume gazteak ez kontratatatu, seme-alabak eduki eta amatasun-baja hartuko duten beldurrez.

Bideo honetan, emakume aktore eta abeslari ospetsuei elkarriketetan egin dizkieten horien moduko galderak entzungo ditugu: **"Galdera sexistei erantzuten dieten emakume ospetsuak"**

Beharrezko materiala 1. ERANSKINA
Ordenagailua eta pantaila
Bideoa <http://bit.ly/2zwRqDC>

Iraupena, gutxi gorabehera 55 minutuko saio bat



I. ERANSKINA

Jarri nire lekuan:

Neska elkarriketatzaila izango da eta, mutila, bere azken filma sustatzen ari den aktore ospetsu bat.

Aurkezlea (emakumea): Eskerrik asko zure azken filma aurkeztera etortzeagatik. Gizonezko aktore protagonista zara filmean. Hemen dugu filmaren kartela, eta, bertan, emakume aktore nagusiarekin ageri zara. Ezer baino lehen, galdera bat. Zenbat kilo galdu zenituen gorputz hori izateko? Zer egin zenuen traje horretan sartzeko?

Aktorea (gizona): Eskerrik asko zuei gonbidatzeagatik... bada, egia esan, ez nuen pisurik apropos galdu filma egiteko, baina filmeko jantzien arduradunen lana nabarmendu nahi dut. . .

Aurk. (emak.): Ikusten dudanez, gaur ere traje bat jantzi duzu. Baina honekin arropa sexya eraman dezakezu? Edo arropa sexya lo egiteko soilik erabiltzen duzu?

Akt. (giz.): ba... tira... ez, nik arropa eroso jartzen dut lo ondo egiteko.

Aurk. (emak.): Azken aldi honetan, zure aktore-karrera oso ondo doa. Bi film egin dituzu, telesail batean ikusi zaitugu. Gainera, proiektu berriak dituzu eskuartean; zientzialari baten rola egingo duzu ezta? Nire ustez, guapoegia zara zientzialari bat antzetzeko.

Akt. (giz.): Bai, ezin naiz kexatu, nire karreraren une gorenean nago, eta oso pozik proiektu berriak eskaintzen dizkidatelako eta lanean jarraitu ahal dudalako.

Aurk. (emak.): Hala ere, badakigu oraintsu dibortziatu zarela. Beraz, nola moldatzen zara lan egiteko eta bi seme-alabak zaintzeko?

Akt. (giz.): Beti izaten da senideen eta adiskideen laguntza, ordutegiak egokitu ahal dira... baina ez dakit galdera hau...

Aurk. (emak.): Filma esan dezakegu mutilentzat dela erabat, hasiera-hasieratik amodioa, sentimenduak, grinak ageri dira, eta, hala ere, emakume aktore asko daude filmean. Gidoia irakurri zenuenean, ez al zenuen pentsatu zergatik zeuden hainbeste emakume filmean? Ez al zen, bada, mutilentzako film bat?

Akt. (giz.): Egia esan, ez dut uste amodioak eta sentimenduek soil-soilik mutilen munduko zerbait izan behar dutenik. Emakumeek ere badituzte sentimendu horiek; beraz, ez nuen halakorik pentsatu.

Aurk. (emak.): Hemendik irteten zarenean, zinema-akademiako urteroko jaialdira joango zara, eta sari bat emango dizute. . .

Akt. (giz.): Bai, oso hunkituta nago eta saria jasotzeak poz handia ematen dit.

Aurk. (emak.): Gaur gauean, trofeo bat baino zerbait gehiago eramango duzu etxera? Agian, emakume bat? Zure *ekipamendurekin* uste dut errazago izango dela neskatan egitea, aktore gisa serio hartzea baino, ezta?

Akt. (giz.): Uste dut lagunekin aterako naizela ospatzera, eta nahiago dut ez jakitea zer esan nahi duzun ekipamendu horrekin.

Aurk. (emak.): Ez ezazu gaizki hartu, uste nuen galderak grazia egingo zizula.

Aurkezleak eta aktoreak elkarri agur esan diote, eta aktorea jaialdira doa. Han, horren antzeko galdera pila bati erantzun beharko die (gogoko duen diseinatzaileaz, daraman trajeaz...). Bitartean, aurkezleak grabazio-taldekoekin aipatu du zer gutxi lagundu dion elkarriketatuak, eta erantzutean antzematen zela galderak ez zitzaizkiola asko gustatu

II. ERANSKINA

Elkarriketa egiten duen emakumeari erreparatzen dion taldeak honako hauek izan behar ditu kontuan:

Zer gai aipatzen ditu galderetan? (moda, lana, bizitza pertsonala...)

Errespetuzko galderak dira?

Publikoari interesatzen zaizkion galderak dira?

Zuen ustez, zer informazio atera nahi du elkarriketatzaila?

Zer-nolako publikoarentzat egin du elkarriketa? (gizonak, emakumeak, gazteak, adinekoak, haurrak...)

Zuen ustez, egiten al zaizkie benetan galdera horiek aktoreei elkarriketetan edo prentsaurrekoetan?

Elkarriketatua izan den gizonari erreparatzen dion taldeak honako hauek izan behar ditu kontuan:

Eroso sentitzen al da egiten dizkieten galderekin?

Zuen ustez, modu egokian erantzuten du?

Aukerarik ba al du bere lanaz hitz egiteko edo filma sustatzeko?

Zuen iritziz, nola erantzun beharko luke?

Zuen ustez, benetan egiten al zaizkie galdera horiek aktoreei elkarriketetan edo prentsaurrekoetan?



BERDINAK AL GARA, BENETAN?

Jardueraren izena	Genero-indarkeria
Helburu zehatzak	• Genero-indarkeriak zer esan nahi duen jakitea • Horri buruz hausnartzea
Konpetentziak	• Gizarterako eta herriartasunerako konpetentziak • Kultura-kontzientzia eta -adierazpenak
Hezkuntza-etapa	DBHko bigarren zikloa
Irakasgaiak	Gizarte Zientziak eta Gaztelania eta Literatura
Garapena	



Jarduera testuinguruan jartzeko, ikasleei eskatuko diegu zer gatazka-mota sortzen diren (gure iritziak, gatazkak, ideiak, iritziak, sinesmenak... kontrajartzen direnean sortzen diren egoerak dira; gatazkak ez dira zertan negatiboak izan behar, ezagutzak garatzen, negoziatzen ikasten eta abar laguntzen baitigute) inguruko pertsona-talde hauekin:

Familiartekoak / Adiskideak / Ikaskideak / Bikotekidea

Hezitzaileak ideia garrantzitsuenen zerrenda idatz dezake.

Bikoteetan jarriko dugu arreta batez ere, eta horretarako, zenbait galdera egingo ditugu (galdera hauek orientagarriak dira).

- Zenbat bikote-mota ezagutzen ditugu?
- Nola definituko genuke bikote hitza?
- Bikotekidea izateak zenbat gauza positibo eta negatibo ditu?
- Zuen ustez, bikote-gatazka bat noiz bihurtzen da indarkeria?
- Zer da genero-indarkeria? *Ez dugu komentariarik egingo ikasleek genero-indarkeriaz egiten dituzten definizioez, bukaeran bi definizio komentatuko baititugu.*

Indarkeriaren gaian behin sartuta, ikasleei postit txikiak edo papertxoak banatuko dizkiegu, bertan genero-indarkeriazko ekintza bat zer den idatz dezaten (garrantzitsua da ikasleei esatea ez izateko kontuan soil-soilik indarkeria fisikoko ekintzak).

Ikasleak idazten ari diren bitartean, iceberg bat proiektatu edo arbelean marraztu daiteke, genero-indarkeriaz ikusten dena eta ezkutuan geratzen dena irudikatzeko. Irakasleak laguntza gisa erabiltzeko iceberg baten irudia du (I. ERANSKINA).

Ikasleek idazten amaitzen dutenean, papertxoak icebergean jarriko dira, baina bat etorri behar dute idatzi duten hori agerikoa den (albistegietan azaltzen da, azkar konturatzen gara horretaz...) edo agerikoa ez den (ez zaio garrantzi handirik ematen, ezkutuago dago familia- edo bikote-esparruan...).

Papertxo guztiak behin jarrita, I. ERANSKINEKO iceberga proiektu daiteke, eta ikasgelan esplikatu da, aipatu ez diren gauza guztiak nabarmenduz

Gaia sakontzen jarraitzeko, ikasle bakoitzari **Alicia** artikulua emango zaio, etxean irakurri eta iruzkin bat egin dezaten, horri buruzko iritzia emanez.

Iruzkina entregatzen dutenean, artikulua zer iruditu zaien, zer azpimarratuko luketen, artikuluan esaten direnekin ados dauden... eztabaidatuko dute ikasgelan.

Artikuluari buruz dituzten iritziak komentatu ondoren, genero-indarkeriaz eman zuten definizioa berreskuratuko dugu, eta definizio horretan zerbait aldatuko luketen galdetuko diegu. Ondoren, genero-indarkeriari buruzko bi definizio irakurriko ditugu. Lehenengoa Espainiako legediari dagokio, eta bikotekideen eta bikotekide ohien esparrura mugatzen du genero-indarkeria. Bigarrena CEDAW erakundearena da (**Emakumearen aurkako diskriminazio-mota guztiak ezabatzeari buruzko konbentzioa**), eta indarkeria-mota hori erabiltzen den hainbat esparru barne hartzen ditu.

1. Definizioa:

Espainian 2004an onartutako Legean, genero-indarkeriaren aurkako babes osorako neurriei buruzkoan, honela definitzen da indarkeria-mota hori: "gizonek emakumeen aurka egiten duten diskriminazioaren, despaketotasun-egoeraren eta botere-erlazioen adierazpena, honako hauek egiten dutena: emakumeen ezkontideak direnek edo izan direnek, edo haiekin antzeko afektibitate-harremana dutenek edo izan dutenek, nahiz eta elkarrekin ez bizi.

BERDINAK AL GARA, BENETAN?

2. Definizioa:

1. artikulua

Konbentzio honen arabera, "emakumearen aurkako diskriminazioa" esapideak adierazten du sexuan oinarritutako bereizketa, bazterketa edo murrizketa oro, helburu duena emakumearen oinarritzko giza eskubideen eta askatasunen onarpena, gozamina eta erabilera urritzea edo deuseztatzea, emakumearen egoera zibila edozein izanik ere; eskubide eta askatasun horiek gizonaren eta emakumearen berdintasunean oinarrituta daude, eta arlo politiko, ekonomiko, sozial, kultural eta zibilari edo beste edozein arlori dagozkie.

Beharrezko materiala

Postit txikiak edo papertxoak


I. ERANSKINA

Artikulua Alicia <http://bit.ly/2hZgWtG>

Iraupena, gutxi gorabehera

55 minutuko saio bat

I. ERANSKINA



HISTORIAREN EZKUTUKO PROTAGONISTAK

Jardueraren izena

Ikerketa-lana

Helburu zehatzak

- Emakumeak ikasliburuetan duen irudia aztertzea
- Liburuen bitartez emakumeari buruz transmititzen den mezuaz hausnartzea

Konpetentziak

- Informazioa tratatzeko eta modu digitalean komunikatzeko konpetentzia
- Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzia

Hezkuntza-etapa

DBHko bigarren zikloa

Irakasgaiak

Gizarte Zientziak

Garapena

Jarduera hau egiteko, 4 edo 5 ikasleko talde txikiak egingo ditugu ikasgelan, eta talde bakoitzari ikastetxean erabiltzen den ikasliburu bat emango zaio. Haur Hezkuntzatik Batxilergorako ikasliburuak izan daitezke, eta hainbat irakasgaitakoak. Ikastetxean ikaslibururik erabiltzen ez bada, ikasleei aurreko egunean eskatuko diegu aldizkariak edo egunkariak ekartzeko etxetik. Beste aukera bat ikastetxeko liburutegitik liburuak hartzea da.

Azalduko diegu gaur egungo hezkuntzan emakumeek zer eginkizun, irudi eta garrantzi duten aztertuko dutela. Horretarako, talde bakoitzari taula bat duen orri bat (I. ERANSKINA) emango zaio, eta behar beste denbora izango dute taula betetzeko eta ikusi dutenari buruzko ondorioak ateratzeko.

Talde bakoitzak taula bete eta ondorioak atera dituenean, denon arteko gogoeta bat egingo da. Proposatzen ditugun galderak adibideak baino ez dira:

- Alde handia dago ikasliburuetan ageri diren gizonen eta emakumeen irudi-kopuruen artean?
- Irudietan egiten ari direnari erreparatuz gero, zer ondorio atera ditzakezue? (emakumeak eta gizonak protagonistak direnean, zer lan-mota egiten ari diren...)
- Zer liburu edo mailetan ageri dira emakume gehien?
- Ikusi dituzuen irudietan, historiako zenbat gizon ospetsu edo garrantzitsu ageri dira, eta zenbat emakume?
- Zer ondorio atera dituzue?

Ondoren, ikerketa-lan bat egitea proposatuko diegu (beste egun baterako lana izan daiteke): historiako hainbat alorretako emakume aipagarrii buruzko informazioa bilatu behar dute eta, ondoren, bateratze-lana egingo dute, emakume horiek zergatik ez diren ikasliburuetan agertzen aztertuz.

Beharrezko materiala

I. ERANSKINA

Hainbat irakasgai eta mailatako ikasliburuak

Iraupena, gutxi gorabehera

55 minutuko saio bat, eta beste saio bat egiteko aukera

Irakasleentzako orientabideak:

Jarduera egingo den egunerako, ikastetxean erabiltzen diren hainbat irakasgai eta mailatako ikasliburuak prestatuko dira.



I. ERANSKINA

IRAKASGAIA:	EMAKUMEAK	GIZONAK
MAILA	ILUSTRAZIOA	ILUSTRAZIOA
Zenbat aldiz aipatzen dira haien izen bereziak irudi-oinean?		
Zenbat aldiz ageri dira ekintza baten protagonista gisa?		
Zenbat aldiz ageri dira ordaindutako lanak egiten?		
Zenbat aldiz ageri dira ordaindu gabeko lanak egiten?		
Zenbat aldiz ageri dira erantzukizuneko lanpostuetan?		
Zenbat aldiz ageri dira mendekotasuneko lanpostuetan?		
Zenbat aldiz ageri dira zientziarekin, teknikarekin eta teknologia berriein loturiko esparruetan?		
Zenbat aldiz ageri dira aisiarekin loturiko jardueretan (kirola egiten, irakurtzen, zineman, bidaiatzen...)?		
Zenbat aldiz ageri dira objektu sexual gisa?		
Zenbat gizon eta zenbat emakume ezagutu dituzu?		
GUZTIRA		



ANIZTASUNEAN, BERDINAK

Jardueraren izena

Leku desberdinak, erronka berberak

Helburu zehatzak

- Munduko hainbat lekutan izaten diren generoagatiko desparekotasun-egoerak.
- Berdintasunaren alde borrokatzen diren mugimenduen berri izatea.

Konpetentziak

- Ikasten ikasteko konpetentzia
- Gizarterako eta herritartasunerako konpetentziak

Hezkuntza-etapa

Batxilergoa

Irakasgaiak

Gizarte Zientziak

Garapena

Ikasgelan, generoagatiko desparekotasun-egoerak pairatu dituzten zenbait emakume eta gizonen kontakizunak dituzten kartelak/orriak banatuko dira. I. ERANSKINA

Ikasgelan 4-5 pertsonako talde txikiak egingo dira, eta munduko zenbait herrialde dituzten II. ERANSKINEKO paperak emango zaizkie.

Taldeak ikasgelan batetik bestera ibiliko dira, lekukotasunak irakurriz eta II. ERANSKINEKO kartelak dagozkien lekukotasunen azpian jarritz, munduko zer herrialdeetakoak diren pentsatu ondoren.

Gero, eseri egingo dira, eta lekukotasunen herrialdeak jartzean izan diren hutsegiteak zuzenduko dituzte.

Denon artean komentatuko dira:

- Zer iruditzen zaizkizue lekukotasunak?
- Ba al zenuten kasu horien berri?
- Zuen ustez, zer ondorio ekar ditzakete?
- Zer egin daiteke edo zer egiten ari da pertsona horien egoera hobetzeko?

Azken galderari erantzuteko, azken 15 minutuak kasu horiekin loturiko berdintasunaren aldeko mugimenduei buruz hitz egiten emango ditugu. Horretarako, III. ERANSKINEKO informazioa erabiliko da.

Beharrezko materiala

I. ERANSKINA
II. ERANSKINA
III. ERANSKINA
Ordenagailua
Zatar-papera/posterrak
Zelo-papera
Maskulinitate berriei buruzko bideoa: <http://bit.ly/2jTqZRr>

Iraupena, gutxi gorabehera

55 minutuko saio bat

Irakasleentzako orientabideak:

Jarduera egiteko daukagun denboraren arabera, lekukotasun-kopuru egokia jarriko dugu.

1. lekukotasuna. EMAKUMEEN ABLAZIOA kontakizunari ESPAINIA kartela dagokio.
2. lekukotasuna. ZAINZAK kontakizunari EUSKADI kartela dagokio.
3. lekukotasuna. TRATU TXARRAK HARTUTAKO EMAKUMEA kontakizunari AFGANISTAN kartela dagokio.
4. lekukotasuna. LORPENA kontakizunari INDIA kartela dagokio.
5. lekukotasuna. GIZONAK kontakizunari KOLONBIA kartela dagokio.

Jarduera hau lantzean, garrantzitsua da erakustea desparekotasunak testuinguru guztietan gertatzen direla, eta testuinguru guztietan gizon -eta emakume- talde batzuk borrokan ari direla, beren egoerak eta beren ingurukoak aldatzeko, herrialde edo kultura batzuk beste batzuk baino matxistagoak diren ikuspegitik aldentuz.

Garrantzitsua da gizonak eta emakumeak arazo honetan parte hartu behar dutela agerian jartzea, ez baita emakumeen arazo bat, baizik eta gizarte guztia.

Halaber, garrantzitsua da aipatzea mugimendu feminista laguntza handikoa eta aldaketa-eragilea izan dela eta oraindik ere badela, egoera bidegabeak iraultzeko, eta desparekotasun horiek pairatzen dituzten emakumeen prozesuak bideratzeko. Emakumeak, biktimak izateaz gain, aurrera egin eta egoera horietatik ateratzeko lan egiten dute.

I. ERANSKINA

1. Lekukotasuna EMAKUMEEN ABLAZIOA

elconfidencial.com webgunetik ateratako lekukotasuna

Herrialde honetan zero urtetik hamalau urtera bitarteko 17.000 adin txikiko emakume daude ablazioa jasateko arriskupean. Datu hori erakunde honek eman du: Wassu-UAB Fundazioak. Herrialde honetako legediak babesten ditu neska horiek, baina etengabeko arriskuan daude.

Lekukotasun hau egin duen emakumeari Afrikako herrialde batean egin zioten ablazioa, baina herrialde hori ez da aurreko paragrafoan aipatu duguna:

“Egun batean, amak eta izeba batek esan zidaten familiarteko bat bisitatzeraz joan behar genuela, eta bidean ibai baten ibilgu agorrean etzan ninduten, hanketatik indarrez heldu eta aitzo batez klitoria moztu zidaten. Negar egin nuen eta odoletan egon nintzen. Hauts beltz bat jarri zidaten, eta oso dieta zorrotza egin behar izan nuen hiruzpalau hilabetetan zauria sendatzeko.”

Egintza horren ondorioak asko dira, besteak beste: min handia, odoljarioa, tetanosa, gernu-erretentzioa, zauriak. Zenbait kasutan, neskaren heriotza ere gerta daiteke odolusteagatik edo, traumak eta min handiak eragindako kolapso neurogenikoagatik. Epe luzera: zistitisa eta gernu-infekzioak, kisteak, harriak maskurian, gernu-inkontinentzia, menstruazio oso mingarriak. Halaber, haurrak izateko aukera gutxitu egiten da, erditzean arazo gehiago izan daitezke eta jaioberriaren edo amaren heriotza eragin ditzakete. Ondorioak ditu emakumeen bizitza sexualean, koito mingarriak eragin baititzake. Horietaz guztietaz gain, emakume horiek arrisku handiagoa dute GIBez (VIH) kutsatzeko.

2. Lekukotasuna ZAITZAK

Hemendik ateratako lekukotasuna: “Zaintza- eta (des) parekotasun-historiak” Ellacuria fundazioa

Resurrección naiz, jatorriz Nikaraguakoa. Bi seme-alaba ditut (neska eta mutila) eta ez nago ezkontuta. Basogintzako ingeniaria eta kontabilitate publikoko teknikaria naiz. Nikaraguan komunitate-garapeneko GKE batean lan egin nuen kaleko haurrekin. Horrekin bizi nintzen, alaba unibertsitatean hasi zen arte. Une horretan, Espainiara etortzea erabaki nuen, alabaren ikasketa-gastuei aurre egiteko. Hemen, parroko batek lan baterako gomendatu ninduen, baina andreak ez ninduen hartu, “oso beltza” nintzelako.

Lana lortu nuen etxe batean, ez nuen agiririk, 800€ baino ez zidaten ordaintzen hilabeteen, ez nuen ez kontraturik ez aparteko ordainsaririk, oporrak bakarrik ordaintzen zizkidan eta bi ordu baino ez nituen libre egunero. Asteburuan, larunbateko 11:00etatik igandeko 21:00etara arte baino ez nuen libre. Goizeko 07:30ean lanean egon behar nuen arratsaldeko 17:00ak arte, eta, gero, 19:00etatik gaueko 22:00ak arte: 12 ordu eta erdi egunero! Bost pertsona zaintzen nituen: hiru adineko eta bi haur. Etxe osoa garbitzen nuen. Lau solairuko txalet bat zen, izugarri handia. Plantxatu egin behar nuen egunero, zapatak garbitu mendira joaten zirenean, janaria prestatzen nuen, haurrak zaintzen nituen, baita haurren au pair neska ere, han bizi



baitzen hurrek alemana ikas zezaten. Nire nagusiek metalurgia-industrian lan egiten zuten, eta beste bi etxe zituzten Espainian.

Paperak egin ahal izateko unea gerturatzen ari zitzaidala eta, andreari esan nion kontratua behar nuela paperak aurkeztu ahal izateko. Esan zidan gizarte-segurantzaz nik ordaindu behar nuela. Onartu egin nuen, beste aukerarik ez nuen eta. 2015eko irailean, paperak lortu nituen. Lan hori utzi nuen, esplotatu egiten nindutelako, eta ez zuten errespetatu Gabonetako aparteko ordainsaria ordaintzeko akordioa. 15 egun itxarroteko eta borondatezko baja sinatzeko eskatu zidaten. Bestela, paperik gabe geldituko nintzela esan zidaten.

3. Lekukotasuna TRATU TXARRAK HARTUTAKO EMAKUMEA

Bideo honetatik aterata: [Sosanen historia \(youtube\)](https://www.youtube.com/watch?v=...)

Sosan 35 urteko emakume bat da eta 6 seme-alaba ditu. Senarrak berarekin desleiala zela susmatzen zuenez, torturatu egin zuen eta behin baino gehiagotan hiltzen saiatu zen Sosanen anaiaren eta 15 urteko seme zaharrenaren laguntzarekin. Behin batean, deskarga elektriko batez hiltzen saiatu ziren, eta, beste behin, pozoia injektatu zioten, eta Sosanek eskuetan sentikortasuna galdu zuen eta ia hil egin zen. Aldi horretan, pertsona bat eraman zuten Sosanen alde otoitz egin zezan eta heriotza-ziurtagiria ere lortu zuten.

Sosanek bere hiru haur txikiekin ihes egin zuen, eta bere herrialdean dauden sei babes-etxeetako batera iristea lortu zuen. Babes-etxean, irakurtzen, idazten eta josten ikasi zuen, baina babes-etxeetan inor ezin da betiko geratu. Senarra dibortziatu egin zen, baina Sosanen anaiek hil egin nahi dute arreba, dibortziatuta dagoelako eta familiaren izen ona eta ohorea zikindu dituelako. Sosanen herrialdean ez da onartzen emakume bat bakarrik bizitzea; beraz, senarrarekin adiskidetzeko proposatu zioten, edo seme zaharrenarekin bizitzeko (Sosan hiltzen saiatu zenarekin). Sosanek hori onartzeko prest ez zegoenez, seme-alaba txikien zaintza galtzen ari da. Babes-etxearen bitartekotzari esker, senar ohiak zor zion dirua berreskuratu du Sosanek, baina ezin du etxe bat alokatu, ez baita gizon batekin bizi. Horrenbestez, berriro ezkondu behar izan zuen, eta seme-alaba guztien zaintza senar ohiari laga behar izan zion.

5. Lekukotasuna GIZONAK

Gizon-talde bat gara... Gizartean modu aktibo eta adierazgarrian parte hartzeko dugun eskubidea erabiltzen dugu, honako hauek salatzeko, gaitzesteko eta gainditzen laguntzeko: emakumeen, gizonen eta transgeneroen aurkako esplotazioa, mendekotasuna eta indarkeria, generoan, sexualitatean edo beste edozein arrazoitan oinarrituta.

Genero-ekitatean oinarrituta, konpromiso hau hartzen dugu: erabakimenez eta modu nabarmenean babestuko ditugu emakumeen, feministen, sexu-aniztasunaren aldeko taldeen eta maskulinitate alternatiboak erakitzearen aldeko talde eta erakundeen aldarrikapenak.

Talde honek aholkularitza eta prestakuntza ematen du alor hauetan: maskulinitatea eta patriarkatua, haurrak hazteko ereduak, aitaren irudia eta aitatasuna, gizonak eta osasuna, gizonezkoen lan-taldeak eta beste hainbat.



II. ERANSKINA

ESPAINIA

AFGANISTAN

EUSKADI

KOLONBIA

INDIA

III. ERANSKINA

1. ABLAZIOAREN AURKAKO BORROKA

Emakumeen genitalen mutilazioa gaur egun ere egiten da, herrialde eta etniaren arabera aldatzen diren zenbait mitok eraginda.

Gero eta herrialde gehiagok debekatu dituzte legez egintza horiek, eta gero eta gehiago dira mutilazio horien aurka dauden gizarte-mugimenduak. Hala eta guztiz ere, lan handia egin beharra dago oraindik ere, legeak debekua ezarri arren, egin egiten baitira. Hemen dugu Euskadin bizi den gizon baten lekukotasuna emakumeen ablazioaren aurka ("EL PAÍS" egunkariko artikulua baten laburpena).

Emakumeen genitaleen mutilazioaren ondorio negatiboen berri jakin arte, Lamine Diawarak (Ziginchor, Senegal, 1983) itsasoa kayuko batean zeharkatu eta Espainian bost urte baino gehiago bizi behar izan zuen. Nor nintzen ni herenamonengandik gaur egungo

bilobengana igaro den eta Koranean ere aipatzen omen den tradizio bat zalantzan jartzeko? Duela hiru urte, astelehen arratsalde batean, Bilboko Munduko Medikuek egoitzan egindako informazio-hizketaldi bat nahikoa izan zen Lamineraren begiak argitzeko. "Ordura arte, ez nuen inoiz entzun afrikar emakume bati gai horri buruz hizketan, are gutxiago ablazioak eragin dituen min fisiko eta psikologikoez". Egun horretan bertan, eztabaidan aritu zen hizketaldian, ablazioa defendatu zuen eta, azkenean, Senegalera deitu zuen telefonoz. "Egia zela baieztatu nuen, Koranen ez dela ezer aipatzen, nire arrebek ere era guztietako ondorio negatiboak jasan zituztela beren gorputzetan eta ablazioaren oinarrian gizonen jeloskortasuna dagoela". Handik aurrera, Diawara emakumeen genitalen mutilazioaren aurkako eragile aktibo bihurtu da Euskadin, eta ongien egiten dakiena baliatzen du horretarako: musika eta antzerkia.

2. ZAINZAK AGERIAN JARRI

Munduko emakume gehienek egiten duten lana, hau da, ugalketa-lana eta etxeko lana ez dira kontuan hartzen... eta funtsezkoak dira. Ez baldin badago ugaltzerik, ez dago produkziorik... emakumeak

gelditzen badira, guztia gelditzen da; etxeko lanak gelditzen badira, gainerako guztia gelditzen da. Zainketa-lanak eremu pribatuan soilik egiten badira, generoaren eta gizarte-klasearen menpe jarraituko dute. Horregatik, funtsezkoa da zainketen borroka hori sukaldetik eta logelatik atera eta kaleetara eramatea. Silvia Federici, Revolución en punto cero Trabajo doméstico, reproducción y luchas feministas, Traficantes de sueños, Madril, 2012

Haurrak, adineko pertsonak, gaixoak edo mendekotasuna duten pertsonak zaintzeko lanak, gehien-gehienetan, emakumeek egiten dituzte, eta, askotan, emakume immigranteek, etxetik kanpo lan egiten duten emakumeak ordezkatzan baitituzte. Eta era berean, emakume migratzaile horiek beste emakume batzuen esku uzten dituzte beren herrialdeko etxean egiten zituzten lanak. Gehienbat emakumeen zirkulu bat da, baina haien lana ez da ezagutzera ematen, ezta duen garrantzia aitortzen ere.

Estatuan, gizarte-segurantzaz etxe-langile gisa alta hartu duten pertsonen % 95 emakumeak dira. Horregatik, zenbait erakundek lanean dihardute lan horien garrantzia ezagutzera emateko eta emakume horien lan-eskubideak eta eskubide zibilak defendatzeko. Seme-alabak zaintzeko eszedentzia-baimena eskatzen duten pertsonen % 92,63 emakumeak dira, eta baimen hori familiarteko bat zaintzeko eskatzen duten pertsonen % 84,04 emakumeak dira ere bai.

3. MUGIMENDU FEMINISTA AFGANISTANEN

Emakumeen egoera Afganistanen beldurgarria da. Hala eta guztiz ere, borroka feministako mugimendu bat dago, talde horretako kide izateak dakarren ondorio guztiekin. Erakundearen izena RAWA da; hau da, Afganistango Emakumeen Elkarte Iraultzailearen siglak. Oposizio talde aktiboenetako bat da, eta nazioartean ere aitortu dute. RAWA 1977an sortu zuen emakume gazte batek, Meenak, emakumearen eskubideen alde borrokatzeko. Gero, historiaren gorabeherak etorri ziren, eta politizatu beste aukerarik ez zuen izan: lehendabizi, inbaditzaileen aurka, eta, ondoren, talde islamikoen aurka. Elkarteak 2.000 afiliatu ditu; gizonak ezin dira kide izan, baina bai laguntzaileak, eta gizon askoren laguntza dute.

RAWA afganiar emakumeez osatutako erakunde sozial eta politiko bat da, giza eskubideen eta gizarte-justiziaren alde borrokatzen dena indarkeria erabili gabe eta demokraziaren alde, eta laikoa eta feminista da. Elkartearen helburu nagusia afganiar emakumeak jarduera politikoetara erakartzea da, emakumeen eskubideak zabaltzeko, emakumeek parte hartuko duten gobernu demokratiko bat lortzeko eta egungo gatazkari azkena emango dion armagabetze aldeanitzuna lortzeko.

4. KASTEN AURKAKO BORROKA INDIAN

1950. urtean indarrean jarri zen Indiako Konstituzioa, eta kaste sistema abolitu. Hala ere, kaste diskriminazio-sistema izaten jarraitzen dute. Dalitak edo ukiezinak Indiako biztanleriaren % 17 dira, eta gizarteko kide pobreenak eta baztertuak. Neska-mutil dalitek zailtasunak dituzte hezkuntza eta osasun-zerbitzuak eskuratzeko, eta gehienek egunean 50 zentimo baino gutxiagorekin bizi behar dute.

Neska eta emakume dalitek diskriminazio hirukoitza pairatzen dute, kasta, klase eta generoagatik. Urtero, mila emakume eta

neska dalit bortxatu eta prostituzioan jardutera behartzen dituzte.

Hori dela eta, gero eta emakume dalit gehiago matxinatzen dira eta beren aldarrikapenak jakinarazten dituzte. Nirmalaren kasuan oposizio-azterketetan kalifikazio onenak lortu zituen oposizioak prestatzeko gaueko prestakuntza-ikastaroetara joan zen. Ikastaro horiek ALBOAN eta IDEAS erakundeekin batera Tamil Nadu estatuan egiten ari garen prestakuntza integraleko proiektu bat osatzen dute.

Instituto de Desarrollo Educativo, Estudios y Acción (IDEAS) erakunde 1984an sortu zen Madurai probintzia jesuitan, suspertzen ari ziren herri-mugimenduak bideratzeko eta laguntzeko, eta, aldi berean, trebakuntza, argitalpenak, komunikabideak eta ikerketa-zentroak haien eskura jarri. Erakundearen helburua daliten, tribu indigenen, emakumeen, gutxiengoen eta beste talde marjinal batzuen ahalduntzea erraztea da, eta haien mugimenduak motibatzea eta laguntzea, eragiten dizkieten gaitan parte hartzea, politikak ezartzea eta giza eskubideen ikuspegia ematea. Garatzen diren jardueretan, honako hauek egiten dira:

- Kontsultak eta lan-sareak egin, mugimenduen liderrekin
- Trebakuntza eman, gai hauek lantzeko: gizarte-azterketa, komunikabideak, legeak, defentsa publiko, genero-ikuspegia eta abar.
- Gizarte-gaiei buruzko testuak argitaratu.
- Defentsa juridikoa sustatu, ikerketan eta presio-taldeetan oinarrituta.

5. GIZONAK ETA MASKULINITATEAK TALDEA KOLONBIAN

Gero eta gizarte-mugimendu gehiago ari dira lanean maskulinitate berri baten alde. Gizonak, talde horietan, gizarteak ezarri dizkieten rolak hausten saiatzen dira. Kasu honetan, Kolonbiako Gizonak eta Maskulinitateak Taldea (Colectivo Hombres y masculinidades) jarri dugu adibidetzat, maskulinitate-eredu berri baten alde borrokatzen baitira.

Informazio gehiago nahi izanez gero, bideo labur bat ikus dezakegu

“maskulinitate berriak” informazio gehiago bilatu haien webgunean: <http://colectivohombresymasculinidades.com/>.



BERDINTASUNA EGUNEROKOTASUNEAN ERAIKITZEN DA

Jardueraren izena

Alderantzikatzak

Helburu zehatzak

- Gizarteak gizon eta emakumeei buruz normaltzat hartzen duenaz hausnartzea, gizon eta emakumeen estereotipoei eta genero-rolari buruz gogoeta egitea.
- Azterketa soziologikoko tresna hau ezagutzea: alderantzikatzak-araua.
- Artea eta umorea erabiltzea berdintasun eza salatzeke.

Konpetentziak

- Ikasten ikasteko konpetentzia.
- Hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia.

Hezkuntza-etapa

Batxilergoa

Irakasgaiak

Gizarte Zientziak

Garapena

Saioa hasteko, ikasleei esplikatu diegu zer den alderantzikatzak-araua, zerbait deseraikitzeke azterketa-metodo bat den aldetik. Ondoren, azalduko ditugu gizartean gaur egun oraindik ere aurkitzen ditugun desparekotasunak sexu-generoaren sistemaren kategorizazioak eraginda.

Horretarako, esango diegu bideo bat ikusiko dugula **“mutilen kontuak”**; izan ere, teknika horretaz baliatzen da tarteko adineko pertsonen eguneroko bizitzarekin loturiko kontuak agerian jartzeko. Lehendabizi, bideoa osorik ikusiko dugu, eta ikasleei eskatuko diegu bideoak sortu dien sentimendu bat idazteko. Gero, ikasgelan bost talde egingo ditugu (talde txikia bada, talde gutxiago egingo ditugu eta zenbait gauzari erreparatzeko eskatuko diegu) eta berriro ikusiko dugu bideoa. Talde bakoitzak gai jakin batzuei buruz deigarrien gertatu zaizkien komentarioak idatziko ditu.

Arbelean idatz ditzakegu talde bakoitzak jaso dituen komentarioak (sailkatzeke modu bat proposatzen dugu); hala ere, irakasle bakoitzak ikasgelan zer landu nahi duen kontuan hartu, eta moldatu egin dezake:

- Gorputzarekin edo itxura fisikoarekin lotutako komentarioak
- Emozioekin lotutako komentarioak
- Lanarekin lotutako komentarioak.
- Bikote-harremanekin lotutako komentarioak.
- Astialdiarekin eta aisiarekin lotutako komentarioak (musika, astialdia...).

Talde bakoitzari kartoi mehe bat edo zatar-paper bat emango diegu. Alde batetik, talde bakoitzak jaso dituen esaldiak edo komentarioak idatziko dituzte. Bestetik, taldean gai hauei buruz eztabaidatzea proposatuko diegu, eta ondorioak zatar-paperean idaztea: Mutilentzat zentzugabea iruditzen bazaie, zergatik ez neskentzat? Gizon edo emakume diren aldetik, presio hori sentitzen dute eguneroko bizitzan? Adibiderik jartzea badaukate? Bidezkoa al da hori? Zer egin dezakegu hori aldatzeko?

Taldeka landu ostean, talde bakoitzak aztertu duen atalean deigarrien gertatu zaizkien komentarioak azalduko dizkie gainerako taldeei.

Saioa amaitzeko, esango diegu teknika hori eguneroko bizitzan erabil dezaketela, berdintasuna ala desparekotasuna eraikitzen ari garek jakiteko.

Beharrezko materiala

Mutilen kontuak bideoa: <http://bit.ly/2tBmTyn>
Arbela

Iraupena, gutxi gorabehera

55 minutuko saio 1 edo 2



BERDINTASUNA EGUNEROKOTASUNEAN ERAKITZEN DA

Irakasleentzako orientabideak:

Sexu-genero sistemaren definizioa:

Emakumeen eta gizonen ezaugarria da jaiotzean desberdintasun fisiologikoak eta sexualak dituztela. Horri sexu deritzo. Genero kontzeptua, berriz, eraiki egiten da. Maskulinoari eta femeninoari egiten die erreferentzia, eta kulturak, gizarte-rolak, irudien adierazpenek, hizkerak, arauak eta abarrek kontzeptu hori ezartzen eta erakusten dutenez, desberdintasun biologikoetan oinarritutako desparekotasunak justifikatu egiten dira.

Alderantzikatze-araua.

Testu bat, egoera bat, jokaera bat edo irudi bat sexista den jakiteko, alderantzikatze-araua aplikatuko da. Hau da, zalantzazko hitzaren, jokaeraren edo irudiaren ordeaz, beste sexuari dagokiona jarriko da. Esaldia, irudia edo jokaera desagokia bada, sexista izango da, eta, beraz, aldatu egin beharko da.

Denbora badugu, beste saio bat egingo dugu. Talde bakoitzak, teknika hori erabiliz, azaldu edo landu egingo du ikus-entzunezko bat, liburu bateko pasarte bat, abesti bat, albistegi bateko kirolen atala... Taldeak antzeman eta aukeratu dezakeen zerbait izango da, ondoren alderantzikatze-araua eta umorea erabiliz aztertzeko.

Azalpena talde handian egitean, interesgarria litzateke taldeetako bozeramaileak zein izango diren ohartzea. Gizon bozeramaile gehiegi badaude, ikasgelan komenta daiteke, eta emakumeak animatu bozeramaile izatera; gizonak konturatu behar dute dagokiena soilik eskuratu behar dutela, bozeramaile izateko banaketa orekatua izan dadin.



BERDINAK AL GARA, BENETAN?

Jardueraren izena	Gustuko dut, ez dut gustuko
Helburu zehatzak	• Sexuarekin eta generoarekin lotutako kontzeptuen berri izatea, baita haien definizio zuzenak ere. • Gizonak eta emakumeak zer balioekin lotzen ditugun ohartzea eta horretaz hausnartzea.
Konpetentziak	• Hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia. • Gizarterako eta herritartasunerako konpetentziak.
Hezkuntza-etapa	Batxilergoa
Irakasgaiak	Gizarte Zientziak.
Garapena	

Saioa hasteko, ikasleekin hitz egingo dugu I. ERANSKINEAN definitzen diren kontzeptuei buruz. Galdetu daiteke ea kontzeptuen berri duten, nola definituko lituzketen, definizioekin ados dauden... (irakasle bakoitzak bere erara landuko ditu kontzeptu horiek, ikasleen ezaugarrietara moldatuz).

Bigarren zatian, bi bertsio proposatzen ditugu, bata libreagoa eta bestea gidatuagoa, irakasle bakoitzak bere denboretara eta ikasleria hobekien egokitzen dena aukeratu dezan.

A AUKERA:

Pertsona bakoitzari II. ERANSKINEKO kopia bat banatuko diogu. Eranskin horretan, hainbat balioen zerrenda bat dago, eta ikasleek zutabe hauekin lotuko dituzte: Emakumeak / Gizonak / Guztiak, sexua bereizi gabe. Lotura horiek EZ dituzte egin behar nahiko luketenari edo ideala litzatekenari erreparatuz, baizik eta errealtatearekin bat datorrena aukeratuz.

Behin hori eginez gero, bost edo sei ikasleko taldetan jarrita, gehien gustatzen edo interesgarrien iruditzen zaizkien 5 balio aukeratu beharko dituzte, eta denon artean adostu gehien gustatzen zaizkien balioak.

Aukeratu dituzten ezaugarriak azalduko dituzte, zergatik aukeratu dituzten eta zer iritzi duten haiei buruz. Eztabaida aberasteko, galdera hauek erabil daitezke beharrezkoa izanez gero:

- Zein balio lotu izan dira gizonekin, eta zein emakumeekin?
- Zergatik uste duzue izan dela horrela?
- Ados al zaudete banaketa horrekin? Zergatik? Zer aldatuko zenukete?
- Zer balio gustatu zaizkizue gehien?
- Zein sexurekin daude lotuta? Zer sentiarazten dizue horrek?

Azken bost minutuan hitz egindakoaren laburpen gisa, bideo hau ikusiko dugu: ***"Berdinak al gara emakumeak eta gizonak?" - CuriosaMente 29*** <http://bit.ly/2jVax3n>

B AUKERA:

Talde bereiziak egingo dira ikasgelan. Hau da, batetik neskak soilik dituzten taldeak egingo ditugu, eta bestetik, mutilak soilik dituztenak. Talde bakoitzari esango diogu zerrenda batean biltzeko gizarteak sexuaren arabera aitortzen dizkigun nolakotasunak, ezaugarriak, zereginak eta rolak. Lehenengo zerrenda hori amaituta, eskatuko diegu identifikatu dituzten hitz horiek bi zutabetan jartzeko. Gogoko dituztenak eta gogoko ez dituztenak.

Ondoren, bateratze-lana egingo dugu talde guztien artean. Lehendabizi, talde bakoitzak identifikatu dituen ezaugarriak, rolak eta zereginak irakurriko ditu, eta guztion artean zerrenda bat adostuko dugu. Interesgarria izango da ikustea ados jarri diren edo eztabaida piztu den. Gero, taldeetan kontatu dugu zenbat ezaugarri gustatu zaizkien, eta zergatik. Interesgarria da alderatzea zenbat ezaugarri markatu dituzten *gogoko dut* eta *ez dut gogoko* talde bakoitzean, eta ikustea eredu bereizlerik ote dagoen neskek eta mutilek jarri dituzten ezaugarrien kopuruan.

Bukatzeko, talde bakoitzean aukeratuko dute beste sexuari aitortzen zaizkion ezaugarrietako zein nahiko luketen izan eta zergatik.

BERDINAK AL GARA, BENETAN?

Beharrezko materiala

I. ERANSKINA

II. ERANSKINA

Bideoa: Berdinak al gara gizonak eta emakumeak?: <http://bit.ly/2jVax3n>

Iraupena, gutxi gorabehera 55 minutuko saio bat

Irakasleentzako orientabideak:

Garrantzitsua da ikasleei askatasunez hitz egiten uztea, estereotipoak eta sinesmenak hausteko.

Amaierako bideoa ikusteko nahikoa astirik ez badugu, beste egun batean ikustea gomendatzen dugu, landu duguna gogora ekartzeko.

Jarduera hori bigarren saio batekin osa daiteke, sexu-banaketaren gaia sakontzen jarraitzeko. Horretarako, hurrengo urratsa BOTERE-LORE bat egitea da (III. ERANSKINA).

Ikasleei eskatuko diegu pentsatzeko nolakoa den gizartean arrakasta izan duen pertsona baten irudia; hau da, nork du boterea? Gure ustez, zer gauza hartzen dira kontuan?

Adibidez, adina, sexua, arraza, sexu-orientazioa, maila sozioekonomikoa, zer herrialdetan bizi den, jatorrizko herrialdea, ikasketa-maila, etab. Sortzen diren kategorietan oinarrituta, Pertsona boteretsu baten irudia adostu beharko dute, lankidetzan-laneko 1-2-4 teknikari jarraituz. (Lehendabizi, 2-3 minutuan, bakarka, pertsona boteretsu horren irudiari buruz pentsatuko dute. Gero, eskatuko diegu erantzunak ikaskide batekin trukatzeko, komentatzeko eta irudi komun bat adosteko. Amaitzeko, 4ko taldean adosten da erantzun bateratu bat)

Behin hori eginez gero, eskatuko diegu erdian beren izena jartzeko eta kategoria horietan beren ezaugarriak jartzeko. Beren ustez, nola daude botere-hierarkian? Konturatzen al dira zer pribilegio dituzten? Orain dauden egoeratik, zer egin dezakete gizartean berdintasun-maila handiagoa lortzeko? Eta, azkenik, nola sentiarazten gaitu?

Saioa amaitzeko, nahi dutenek elkarri adieraziko diote nola sentitu diren beren burua kategoria horietan eta botere-eskala horretan sailkatuta ikusi dutenean.

I. ERANSKINA *egile ezezaguna*

1. Sexua: Espezie bateko indibiduen aldaera biologikoa, arra eta emea bereizten dituen; giza espeziearen kasuan, gizonezkoak eta emakumezkoak.

2. Generoa: Sexu bakoitzari zeregin, jokabide, balio eta gizarte-funtzio desberdinak aitortzea. Ez da biologikoki ezarritako ezaugarri bereizle bat. Kulturak sortutako zerbait da, testuinguruak zehaztuta, eta, beraz, aldakorra.

3. Sistema patriarkala: Nagusitasuna eta jabetasuna gizonezkoari aitortzen dizkion gizarte-sistema. Gure gizartean eta beste hainbat kulturatan, sistema patriarkala da nagusi. Horietan guztietan, emakumeak behe-mailakoak zirela uste izan da eta gizonezkoen ardurapean egon dira.

4. Sexismoa: Sistema patriarkalean erabilitako metodo guztien multzoa, mendeko sexua gutxiagotasun-, mendekotasun- eta esplotazio-egoeran edukitzeko. Sexismoak barne hartzen ditu bizitzaren eta giza harremanen alor guztiak.


5. Androzentrismoa: Gizona, gauza guztien neurritzat hartuta. Azterketa, analisi edo ikerketa bat ikuspegi maskulintatik soilik bideratzea, eta, ondoren, emaitzak norbanako guztientzat erabiltzea, gizon nahiz emakumeentzat.

6. Estereotipoa: Munduari eta gauzei buruzko irudikapena, neurri handi batean beste iturri batzuetatik atera ditugun zeharkako ezagueraz osatuta; iturri horiek ez dira ez gure esperientzia, ez gogoeta pertsonala, ez ezaguera zientifikoa. Walter Lippmanen iritziz (1992), estereotipoak modu irrazionalean aldeztu aurretik pentsatutako judizioak dira.

II. ERANSKINA

BALIOAK	EMAKUMEAK	GIZONAK	GUZTIAK, SEXUA BEREIZI GABE
1. Sormena			
2. Koldarkeria			
3. Esanekotasuna			
4. Lidergoa			
5. Mendekotasuna			
6. Efizientzia			
7. Lehiakortasuna			
8. Ausardia			
9. Inkoherentzia			
10. Intuizioa			
11. Zintzotasuna			
12. Hipokrisia			
13. Pasibotasuna			
14. Protagonismoa			
15. Oldarkortasuna			
16. Arrazionaltasuna			
17. Konfiantza			
18. Autokontrola			
19. Ekimena			
20. Aginpidea			

III. ERANSKINA



HISTORIAREN EZKUTUKO PROTAGONISTAK

Jardueraren izena

Sufragio unibertsalarekin bueltaka

Helburu zehatzak

- Historiako gertaera handietako unibertsal terminoa birplanteatzea.
- Emakumeek boto-eskubidea lortzeko egin duten borroka hobeto ezagutzea.

Konpetentziak

- Kultura-ezaguera eta -adierazpenak.
- Hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia
- Ikasten ikasteko konpetentzia
- Gizarterako eta herritartasunerako konpetentziak

Hezkuntza-etapa

Batxilergoa

Irakasgaiak

Gizarte Zientziak / Historia / Hizkuntza (testuak egitea)

Garapena

Ikasgelan hiru pertsonako taldeak egingo ditugu. Talde bakoitza Kahoot-en aplikazioan sartuko da kode honekin PIN: 937030

Pantailan ageri diren jarraibideei jarraituko diegu. Amaitzean, jokoaren erantzunak berrikusiko ditugu.

Interesgarria da ikasleekin eztabaidatzea, galdera bakoitzean, ea datuaren berri bazuten eta haien ustez zein zen datu zuzena eta zergatik.

Kahoot: <http://bit.ly/2E0K3G3>

Kahoot edo konexiorik ez badugu, galderen zerrenda I. ERANSKINEAN utziko ditugu.

Beharrezko materiala

Internerako sarbidea duen gailu elektronikoko bat talde bakoitzean
Kahoot-erako esteka, jarduera egiteko sortua

Iraupena, gutxi gorabehera: 55 minutuko saio bat

Irakasleentzako orientabideak:

Askotan, gizonen historia aipatzen dugu, historia unibertsala balitz bezala, eta, ondoren, emakumeen historiako atal bat eransten dugu. Jarduera honen bidez, eta zerbait zehatza abiapuntutzat hartuta, hala nola boto-eskubidea, lehendabizi unibertsal terminoa berriro kontzeptualizatuko dugu. Horretarako, adibidez, pentsatuko dugu sufragio unibertsala aipatzen dugunean sufragio unibertsal maskulinoaz ari garela, eta, beraz, ez dela unibertsala, biztanleriaren erdia kanpo uzten duelako. Tresna horri esker, genero-ikuspegia izateaz gain, unibertsalitatea aipatzen dugunean nori buruz ari garen ohartuko gara, baita zer talde edo kolektibo baztertzan ari garen ere.

Jarduera beste saio batekin osatzea proposatzen dugu, Sufragistak filma ikusiz eta zineforum bat antolatuz (II. ERANSKINA).



I. ERANSKINA

Zein urtean onartu zen Espainian sufragio unibertsala?

1931
1868
1933
1890

Erantzuna: 1931

1776.urtean Nueva Jersey-n emakumeen lehenengo sufragioa baimendu zen. Zer dela eta?

Mugimendu sufragistari esker
Senatuan egindako presioei ezker
"Akats" bat dela eta. Pertsona terminoa erabili zen gizona terminoaren ordeztu.
Sufragio unibertsala onartzeko geratzen zen azken lekua zelako
Erantzuna: "Akats" bat dela eta. Pertsona terminoa erabili zen gizona terminoaren ordeztu.

Zein izan zen murrizketarik gabeko sufragio unibertsala onartu zuen lehenengo herria?

Nueva Zelanda 1893
Norvegia 1893
Australiaren hegoaldean 1861
Mexiko

Erantzuna: Nueva Zelanda 1893

Zein izan zen hegoamerikan sufragio unibertsala onartu zuen lehenengo herria?

Mexiko 1927an
Argentina 1927an
Uruguay 1927an
El Salvador 1927an
Erantzuna: Uruguay 1927an

Nortzuk izan ziren sufragistak?

Pelikula baten protagonistak
Lehenengo aldiz bozkatu zuten emakumeek
Bozkatzearen kontra egon ziren emakumeak
Bozkatzeko eskubidearen aldeko nazioarteko mugimendu feministak
Erantzuna: Bozkatzeko eskubidearen aldeko nazioarteko mugimendu feministak

Zein herritan Clara Campoamor izan zen sufragio unibertsaleko bultzatzaile nabaria?

Guatemala
El Salvador
Espainia
Portugal
Erantzuna: Espainia

Nortzuk izan ziren sufragista ezagunak?

Emma Pankhurst
Kate Shepperd
Emma Pankhurst y Kate Shepperd
Emma Pankhurst, Kate Shepperd y Emily Davison
Erantzuna: Emma Pankhurst, Kate Shepperd y Emily Davison

Zein urtetan Nazio Artoko Giza Eskubideen komisioa onartu zuen sufragio unibertsala?

1936an
1948an
1952an
1999an
Erantzuna: 1948an

Zein izan zen Europako lehen herri sufragio unibertsala onartzen?

Norvegia
Rusia
Finlandia
Erresuma Batua
Erantzuna: Finlandia



II. ERANSKINA

Sufragistak filma ikusi ondoren, galdera hauek egin daitezke, Indautxuko ikastetxeko Talde Feministaren esperientzian oinarrituta.

Nola banatzen dira etxeko lanak?

Nola deskribatzen dituzte komunikabideek emakumeak eta haien ekintzak? Zer helbururekin erabiltzen dira?

Emakumeak lan egin arren, zer lan-motatan ari da?

Zer alde dago protagonistaren eta bere senarraren harremanaren eta farmazialariaren eta bere senarraren harremanaren artean?

Zuen ustez, zer sentitzen du protagonistak ugazaba aurkitzen duenean Miller txikia bortxatzen saiatuz.

Zergatik ez du lekukotasuna aurkeztu nahi? Eta nola sentitzen da egin ondoren?

Gauza bera al dira zaintzea eta kontrolatzea?

Nola sentitzen dira entzuten dutenean egin duten guztiak ez duela balio emakumeen botoa lortzeko?

Zergatik kentzen du medaila etxean sartu aurretik? Zergatik dago beldurrez?

